

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

TOKIKO GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOA

Alkatearen dekretua

Udal laguntzen programa arautzen duen ordenantzaren 19 eta 28. artikuluetan xedatutakoaren arabera —2017ko uztailaren 21ekoa (2017ko irailaren 1eko ALHAO, 100 zk.)—, alkateari edo hark eskumena ematen dion zinegotziari dagokio laguntzak eman, aldatu, eten, ukatu edo iraungitzeko prozedurak ebaztea, horretarako tramitatutako dosierra osatu ondoren.

Gizarte Zerbitzuen Legearen 22. artikuluan definitutako arreta primarioko zerbitzuak eskaintzeko eskumena aitortzen die udalei Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak, telelaguntza-zerbitzua salbu.

Toki Araubidearen Oinarrien Legearen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 124.4 º artikuluan aurreikusitakoaren arabera, alkateari dagozkio legeak berariaz ematen dizkion eskumenak, baita Estatuaren legeriak edo autonomia-erkidegoetakoak udalerrinari esleitzen eta beste udal organoei egozten ez dizkieten ere.

Horrenbestez, eta eskakizun sozialen beharrek eskatzen duten premiari men eginez,

Xedatu dut

Lehena. Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saileko zinegotzi ordezkari Jon Armentia Fructuosoren esku uztea udal prestazioen programako prozedurak ebazteko eskumena, batia arreta primarioko prestazio eta zerbitzuei dagozkienak ere.

Bigarrena. Dekretua hau dataren biharamunean jarriko da indarrean; hala ere, ALHAOn argitaratuko da.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko ekainaren 26an

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE